


DISTRIBUCION POR COMARCAS DEL NUMERO DE PLANTAS DE MANZANO
SUPERVISADAS POR LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

zen sei urte hauetan Foru Aldundiak Lurraldean ia berrogei mila landare
natu ditu

SAGARDO INDUSTRIAREN BEHARRAK HORNITZEKO GIPUZKOAK MILIOI ERDI LAGARRONDO BEHARKO TUTUZKE

Guipúzcoa posee en la actualidad 189 hectáreas de manzano en plantación regular y 124.000 árboles diseminados. En total, 176.000 manzanos, una cifra a todas luces insuficiente para cubrir las necesidades de una expansiva industria sidrera y que obliga a los elaboradores a buscar materia prima en Galicia y Asturias. La Diputación Foral de Guipúzcoa, que comenzó hace seis años una campaña de fomento de la pomología, ha distribuido en este espacio de tiempo cerca de cuarenta mil plantas por todo el Territorio. Según el autor de este artículo, se necesitarían medio millón de árboles para obtener una producción regular que satisfaga las necesidades de la industria de sidra natural en Guipúzcoa.

Gipuzkoak landaketa erregularreran 189 hektarea ditu eta sakabanaturik 124.233 sagarrondo. Arbol hauetatik asko mahaiko barieta-teak dira eta beste batzuk fruitu gabekoak dira oraindik gazteak edo bere adina dela eta zahartasun fasean daudelako. Produkzioaren beste parte bat baserritarrena da, beraiek kontsumituko duten sagardoa egiteko erabiltzen duten sagarra.

Baina lehen aipatutakoa utz dezagun alde batera eta kalkula dezagun Gipuzkoan dauden arbolaren kopurua. Bakoitzari 6 x 6 metrotako landaketa inguru bat asignatzen diogula eta arbol guztiak urte berean batera ekoizten dutela suposatzen badugu, 189 hektareak 36 metro karratuen artean zaitzen baditugu 52.500 sagarrondo ditugula ateratzen da; hauek sakabanaturik dauden 124.233ei gehitzen badizkiogu 176.733 sagarrondo daudela ateratzen da. Arbol bakoitzeko 50 kilo sagar lortzen badira, uzta 8.836.650 kilotakoa izango litzake. Hala ere, badakigu horrelako uzta bat ez dela inoiz ematen eta Gipuzkoan produkzioa 3 milioi inguruan dagoela.

Jakina denez, sagar kilo baten errendimendua %60 eta %75 artean dago, barietate ezberdinak direla eta. Zifra handiena hartzen badugu, zortzi milioi kilo sagarrek 6.627.487 litro sagardo emango lukete. Hala eta guztiz ere, zifra errealek adierazten dutenez aipatutako Lurraldean sagardo produkzioa lau edo bost milioi litro ingurukoa da. Urtean bederatzi eta hamar milioi litro egin diren urteak ere izan dira. Sagardo produkzio honekin sagardo industriaren beharrak betetzea ezinezkoa dela begi bistan dago.

Horrengatik Gipuzkoako Foru Aldundiak duela sei urte pomologia bizi-kortzeko kanpaina bat hasi zuen, eta geroztik 39.071 landare banatu ditu Lurralde guztian zehar. Zifra honi Diputazioaren kontrolarik gabe haztegi partikularrek saltzen dituzten arbolak gehitu behar zaizkio. Aipatu behar da ere, oso hustirakuntza gutxi direla Foru Aldundiak laguntzak emateko eskatzen dituen baseak betetzen ez dituztenak.

Zazpi milioi litro ekoizteko 150.000 eta 200.000 arteko arbolak behar direla esan genezake. Kontu-



Vivero de variedades de manzana de sidra en la Finca Zubieta, de Hondarribia, dependiente de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

tan hartzen badugu sagarrondoa *bezero* dela, hau da, urte batean bete eta hurrengoan ia ez duela fruiturik ematen, lehen aipatutako zifra hori bikoiztu egin beharko da. Urtero eraberritzen diren arbolak eta fruiturik ematen ez dutenak kontutan hartzen baditugu, Gipuzkoako sagardo industriaren beharrak betetzeko 450.000 edo 500.000 sagarrondo behar direla esan genezake.

Erosketa-salketa kontratuak

Duela gutxi arte sagardotegiak ekoizle txikiak ziren eta urtean ez zuten ehun mila litro baino gehiago ekoizten. Erabiltzen zuten sagarraren parte handiena inguruko baserrietatik lortzen zuten eta sagarraren merkaturatzeari buruz ohitura finko batzuk ezarri ziren.

Gaur egun askoz sagardotegi gehiago daude eta batzuk lehen baino sagardo gehiago ekoizten dute. Egoera honek sagardoegileak Galizia eta Asturias aldera joatea eragin du, sagardo sagarraren barietate ezberdinen bila. Horrela, erosketa-salketa kontratuak sortu dira nekazari eta sagardoegileen artean. Gaur egun hiru kontratu modalitate daude:

1.- Nekazarien sindikatoarekin (EHNE) sinatutako hitzarmenen bitartez ezarritako prezioa. Ekoizleak eta Gipuzkoan dauden bi

sagardoegileen elkarteko bat sagar kiloaren prezioa ezartzeko urtero biltzen dira. Erabakitako prezioa urtean zehar egingo diren erosketa-salketa operazioetan eredu bezala erabiliko da.

2.- Sindikal inbertsiorik gabe ezarritako prezioa. Beste sagardoegile batzuk hornitzaile batzurekin kontratu bat sinatzen dute, eta hauek gutxienez elkartetako batek sindikatoarekin ezarri duen prezioa garantizatzen zaie. Hornitzaile hauek erosten aldetik bere hustirakuntzaren kontrol bat dute: dituzten barietateak, uztaren egoera, lortzea espero duten kiloaren kopurua, e.a.

3.- Komisiolarien eskeintzen duten prezioa.- Erosketa-salketa egiteko erabiltzen den hirugarren eran Galizia eta Asturiasetik datorren sagarrarekin erabiltzen dena da: komisiolarien egindako eskeintza, hauek fruitua biltzen dute eta gero sagardoegileei eskeintzen die eta hauek eskariak zehazten dituzte.

Hala ere, urte batzutan nekazariak kexatu egiten dira, biltzen duten sagarra ezin dutelako saldu.

Sagardoegileek, bere aldetik, aurrikusmen eza honrengatik ere ondorioak jasaten dituzte, beste lurraldeetako komisiolariekin tratua egin ondoren bere urteroko uzta espero zena baino hobe izan dela egiaztatzen



Manzano de sidra en eje central en la estación experimental de la Diputación guipuz-
ma.



Plantación experimental de manzana de cuatro años de edad, en Zubieta.

dutelako. Esaten dutenez klimatologia eta gaur egun arbolek jasaten dituzten arreta hobeak zerikusia badute.

Hala eta guztiz ere, nekazariak eta sagardoegileak dira homidura arazo hauek gertatzearen arduradunak. Alde batetik, nekazariak prezio hobe bat lortzeko asmoarekin ezin dira azken momentu arte egon bere uzta saltzeko: sagardoegileei garaiz eskeini beharko die sagarra; sagardoegileek, bestalde, Gipuzkoako sagardietan prospekzio batzuk egin beharko dituzte kanpaina horretarako espero den uzta aurrikusteko. Eta hau arrazoi gehiagokin gure herriko sagardoa bultzatu nahi badute.

Komenigarria izango litzake nekazariak eta sagardoegileak erosketasalketa kontratu iraunkorrek ezartzzea. ■

IGNACIO JAVIER LARRAÑAGA URAIN
Nekazal Sustaketa Zerbitzua
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ZENTSUA EZAGUTU

SUSTRAI aldizkariak 9 zenbakian nekazal-arrantza merkaturatzeari buruz txosten bat argitaratu zuen eta bertan sagardo sagarrari buruz aipamen bat egiten zen, Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Ekoizleen Elkarteko burua den Jose Mari Irizarrekin egindako elkarrizketa baten bidez. Irizarren eritziz, landaketa berriak egin aurretik dauden sagarrondoak kopurua ezagutzea beharrezkoa da.

Honi dagokionez, 1982an Estadistika Zuzendaritzak egindako Euskal Komunitate Autonomoaren Nekazal Zentsu bat badagoela esan behar da, eta bertan Lurralde Historiko bakoitzeko, eta eskualde bakoitzeko ere, sagar hezkuntzari dedikaturiko hustirakuntzen kopurua, hektareen kopurua, e.a. Hauek dira hasteko ditugun datu bakarrak, eta azken urte hauek egindako landaketa berrien datoei osatzen baditugu gure hustirakuntzen sagarrondoak produkzioaren ezaguerara hurbil gaitzke. ■